

Abadiñok liburu zerbitzu berri bat jarriko du abian apirilean

ABADIÑO. Hurrengo apiriletik aurrera Abadiñoko auzotarrak bai Errota kultur etxean, bai udal mediatekan liburuak trukatzeko aukera izango dute. Udaleko agintariek jakitera eman dutenez, herriko irakurleak hainbat liburu izango dituzte eskura eta arazorik gabe nahi duten alea elkarri aldatu ahal izango dute.

Pasa den urtean, Udalak zerbitzu berdina jarri zuen abian, baina hilabete bateko iraupena izan zuen soilik. Urte honetan berriz, etengabeko luzapena izatea gustatuko litzaieke. 'Liburuen trukea librea izango da eta interesatu guztiak liburutegira joan ahal izango dira gustokoa duten liburua hartzera', azaldu du Kultura zinegotziak.

Pasa den urteko balorazioak datu onak bota zituen eta Udaleko arduradunek uste dutenez, oraingoan ere harrakasta handia izango du zerbitzuak. Bozaramaileek azaldu dutenez, aukera honekin irakurtzeko saletasuna suspertu nahi da abadiñarren artean, beste herri batzuetan gertatu den moduan.